



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_2207/19_10

Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Lege-aurreproiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatze Zuzendaritzan irailaren 5ean Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Lege Aholkularitzak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behineko onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena irailaren 2koa da. Zerbitzu Juridikoaren txostenari dagokionez, eskaera jasotzeko unean ez zegoen Tramitagunen eskuragarri; oraindik egoera berean bagaude ere, Zerbitzu Juridikoaren txostenik eduki ez arren, izapidea arintze aldera gurea igortzea erabaki dugu.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Lege-aurreproiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da”.

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

Lege aurreproiektuaren edukari dagokionez, hizkuntzei buruzko zenbait ezarpen jasotzen dira.

Zioen *Azalpenean* aurkitu dezakegu hizkuntzen gaiari buruzko lehen aipamena; honela dio:

*Kirolari lotutako gobernantza onaren esparruan, herritarrek kirolaren esparruan bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko duten eskubidea eta **kirolarien eta gainerako parte-hartzaileen hizkuntza-eskubideak bermatu nahi dira** Lege honen bidez, kirol-jarduera ofizialaren esparruan bereziki, botere publikoen erantzukizuna baita herritarrek **euskara erabiltzeko** duten **eskubidea bermatzea** eta gure hizkuntzaren **ezagutza eta erabilera babestea eta bultzatzea**, euskararen erabilera normalizatzeke azaroaren 24ko 10/1982 Legeak ezartzen duenari jarraikiz.*

Handik hurbil, *Xedapen Orokorrei* buruzkoa den *I. tituluan* kokatzen den *2. artikuluan*:

2. artikulua.- Printzipio gidariak.

3.- Euskal botereek, beren eskumenen esparruan, jarduera fisikoa eta kirola egiteko eskubidearen eraginkortasunera zuzendutako politika bat ezarriko dute, honako printzipio gidari hauei jarraikiz:

*dd) **Jarduera fisikoa eta kirola euskararen erabilera sustatzeko tresna gisa baliatzea.***

Kirol Erakundeei buruzkoa den V. tituluan kokatutako V. kapituluan dagoen 42. artikulua hizkuntza ofizialei buruzkoa da bere osotasunean:

42. artikulua.- Hizkuntza ofizialak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-federazioen hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira.

2.- Kirol-federazioek bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte honako dokumentu hauetan gutxienez:

- a) Federazio-lizentziak.*
- b) Ematen dituzten txartelak, agiriak eta antzeko dokumentuak.*
- c) Estatutuak, erregelamenduak eta zirkularrak.*
- d) Lehiaketak iragartzen dituzten kartelak.*
- e) Federazio-organoen deialdiak.*
- f) Gobernu- eta administrazio-organoen bilkuren aktak.*

3.- Ziurtagiriak interesdunak aukeratzen duen hizkuntza ofizialean egin beharko dira.

*4.- Kirol-federazioek **hizkuntza-normalizazioko planak landu, onartu eta gauzatu beharko dituzte, federazioaren bizitzan euskararen erabilera normala pixkanaka bermatzeko.** Betebehar hori bete ezean, dirulaguntzak jasotzeko gaitasuna galduko dute.*

5.- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo eskudunek eta lurralde historikoetako foru-organoei kirol-federazioen barruan hizkuntza-normalizazio egokia lortzeko beharrezkoak diren baliabideak eta laguntza tekniko egokia eman beharko dizkiete kirol-federazioei.

Hurrengoa, VII. tituluan kokatutako I. kapituluan (Eskola Adineko Jarduera Fisikoa eta Kirola) dagoen 73 artikuluan:

73. artikulua.- Programak.

*7.- Eskola-adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programek **euskararen erabilera sustatu beharko dute ikasleen kirol-jardunaren esparruan.***

Azkena, Ikerketa, Berrikuntza eta Kirol-Teknikarien Prestakuntza eta Boluntarioei buruzkoa den VIII. tituluan kokatzen den 81. artikuluan:

81. artikulua.- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskola.

3.- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolak prestakuntza- eta informazio-programak sustatuko ditu kirol federatuaren, eskola-kirolaren, unibertsitate-kirolaren eta lehiaketa-izaerarik gabeko beste kirol-adierazpen batzuen esparruan. Programa horien eskaintza bi hizkuntza ofizialetan egingo da, baina, ahal bada, euskara lehenetsiko da 18 urtetik beherako pertsoneri zuzendutako programetan.

Legezkotasunaren ikuspegitik ezarpen horiek egokiak dira eta ez dute talkarik egiten hizkuntza alorrean indarrean dagoen legediarekin.

Gogoratu ditzagun Euskararen Erabilera Normalizatzeko, azaroaren 24ko, 10/1982 Oinarritzko Legearen pasarte batzuk:

Hizkuntza Euskal Herriko herritar guztien integrazio-tresna gisa aitortuz gero, euskal herritarrek hizkuntza arloan dituzten eskubideak lege-antolamenduan jasotzeari ekin behar zaio eta, bereziki, hizkuntza ofizial bietako edozeinetan hitz egitekoa eta Euskal Herria gordailu duen kultura-ondarearen funtsezko zati den aldetik gure hizkuntzari zor zaion babesaren ziurtasuna.

Irakaslegoaren prestakuntzari dagokionez, irakasleek euskara eta gaztelania erabat menperatu ditzaten beren ikasketa-planak egokituko dira.

Herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean

5. artikulua

1. Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.

2. Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.

b) Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea.

c) Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.

d) Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea.

e) Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.

3. Herri-aginteek eskubide hauen erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurraldean, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen.

Euskararen erabilera irakaskuntzan

15. artikulua

Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea irakasmila guztietan.

Horretarako, Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak neurri aproposak hartuko dituzte Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko irakaskuntzan elebitasuna gero eta orokorragoa izan dadin.

Euskararen gizarte-erabilera eta erakundeen alorreko beste zenbait alderdi

26. artikulua

*Euskal herri-aginteek neurri egokiak hartuko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarriko **gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko**, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, **kiroletako**, erlijiozko edota beste edozein motatako jarduera guztiak euskaraz garatu ahal izan ditzaten.*

27. artikulua

1. Euskal herri-aginteek euskararen erabilera sustatuko dute publizitatean.

*2. Halaber, **euskal giroa eta euskara errotulazioan** erabiltzea bultzatuko dute, **era guztietako entitate** komertzial, atsedenerako, kulturarako **zein** ofizialtasunik gabeko elkarteetan.*

Halaber, honela dio *Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren*, abenduaren 22ko, 6/2003 *Legeak* bere 39. artikuluan:

39. artikulua.– *Diruz lagundutako erakundeak eta interes orokorreko sektoreak.*

1.– *Lege honen ondorioetarako, honakoak izango dira diruz lagundutako erakundeak eta interes orokorreko sektoreak:*

a) *Legez unibertsalak, interes orokorrekoak edo beste kategoria batekoak diren zerbitzuak egiten dituzten erakunde edo pertsona juridikoak, edo unibertsaltasun eta berdintasuneko araubide juridikoaren pean dauden zerbitzuak ematen dituztenak, hala nola garraioak, telekomunikazioak eta energia-zerbitzuak.*

b) *Euskal herri-administrazioek ematen dituzten laguntzen edo diru-laguntzen onuradunak diren erakunde edo pertsona juridikoak, edo horietako edozeinekin lankidetzeta-hitzarmena sinatu dutenak. Kasu honetan, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei dagokien bermeak diru-laguntza edo hitzarmenaren xedearekin erlacionatutako harremanen eremua ere hartuko du.*

Eta honela *Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia Antolatzeko Arauei* buruzko *Legearen* testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 *Legegintzako Dekretuaren* 51.1 artikulua c) hizkiak:

51. atala.– *Laguntzak emateko arauak, eskumenak eta jardunbidea.*

1.– *Laguntzak edo diru-laguntzak emateko arauetan, gutxienez ondoren aipatzen direnak adierazi beharko dira:*

c) *Laguntza edo diru-laguntza esleitzeko eta, hala behar badu, baita neurtzeko ere, irizpide objektiboak zehaztu beharko dira. Laguntzaren edo diru-laguntzaren helburua den gaian hizkuntzaren erabilerak zerikusia baldin badu, edo azaroaren 24ko 10/1982 *Legearen* (*Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizkoa*) 25, 26 eta 27. ataletan aipatzen diren jarduera-eremuetakoak baldin badira gai horiek, hizkuntza-gaitasuna kontuan eduki beharko da esleipena egiteko irizpide objektiboen artean.*

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Hasteko esan behar dugu, gaur egun indarrean dagoen *Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearekin* alderatuz, eskuartean dugun Lege aurreproiektuaren ezarpenek bultzada handiagoa ematen dietela hizkuntza eskubideen bermeari eta euskararen sustapenari; beraz, aurreikusi dezakegu euskararen erabileraren normalizazioan aldeko eragina eduki dezaketela.

Aipatutako *Euskadiko Kirolaren*, ekainaren 11ko, *14/1998 Legean* hizkuntza aipamenak *Hirugarren Xedapen Gehigarri*a mugatzen dira; honela dio:

Hirugarrena.– Kirol-federazioen hizkuntz normalkuntza.

Kirol-federazioek beren jardunean euskararen erabilera normaltzeko egokiak diren neurriak hartuko dituzte. Bereziki, katalogoetan, programetan, iragarpen-hormirudietan eta beren kirol jardueretan eta lehiaketetan erabiltzen duten gainontzeko irudizko edo entzutezko materialean bultzatuko dute euskararen erabilera.

Horren ordez, aurreproiektuaren 42. artikuluan ikuspegi zabalagoa jorratzen da eta neurri zehatzagoak ezartzen dira; txosten honetan aurrerago aztertuko ditugu proposatutako artikuluen alderdiak.

Hizkuntzei buruz aurreproiektuan jasotzen diren gainerako ezarpenek ez dute islarik indargabetu nahi den Legean.

Zioen azalpenaz gain, aztertzen ari garen aurreproiektuak 15 titulutan banatutako 158 artikulua ditu gehi 12 xedapen gehigarri, 3 xedapen iragankor, 2 xedapen indargabetzaile eta 2 azken xedapen.

Xedapenaren tamaina eta ezarpenen aniztasuna aintzat harturik aurreproiektuaren edukiak multzoka aztertuko ditugu.

Aurretik ikusi dugun bezala, *Xedapen Orokorrei* buruzkoa den *I. tituluan* kokatzen den *2. artikuluan*, *Printzipio gidarien* artean euskararen erabileraren sustapena jasotzen da:

3.- Euskal botereek, beren eskumenen esparruan, jarduera fisikoa eta kirola egiteko eskubidearen eraginkortasunera zuzendutako politika bat ezarriko dute, honako printzipio gidari hauei jarraikiz:

dd) Jarduera fisikoa eta kirola euskararen erabilera sustatzeko tresna gisa baliatzea.

“Jarduera fisikoa eta kirola euskararen erabilera sustatzeko tresna gisa baliatzea” printzipio gidarien artean txertatzea oso egokia iruditzen zaigu.

Halere, kokapenari dagokionez, ikusten dugu 36 printzipio gidari jasotzen direla eta euskararen sustapena horien artean 30.a eta bakarra dela; aldiz, genero berdintasunari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu c), e), l) eta hh) printzipio gidarietan jasotzen dela.

Maila sinbolikoa kontuan harturik proposatzen dugu euskararen sustapenari lotutako printzipio gidariari beste kokapen bat ematea, hurrenkeraren hasieratik hurbilago, eta baloratzea beste printzipioen artean aipamenen bat txertatzearen egokitasuna; adibidez:

hh) Jarduera fisikoaren eta kirolaren babes pribatua (eta emakumeen kirolaren eta euskaraz egindako kirolaren babesa bereziki) jarduketa publikoaren osagarri gisa sustatzeko neurriak hartzea.

Jarraian dauden II., III. eta IV. tituluak administrazioen jardunari buruzkoak dira oro har.

II. tituluaren (*Administrazio Antolamendua*) administrazio publikoetako maila bakoitzaren arlo honetako eskumenak zerrendatzen dira: 3. artikuluan erakunde komunenak, 4. artikuluan lurralde historikoetako foru organoenak, 5. artikuluan udalerrienak eta 7. artikuluan *Jarduera Fisikoaren Euskal Agentziarenak*.

III. tituluaren (*Jarduera Fisikoaren Sustapena*) helburuak eta arloz-arlo zein maila orokorrean hartu beharreko neurriak zerrendatzen dira (arreta bereziko taldeentzakoak, hezkuntza arlokoak, garraio eta bide segurtasunari loturikoak, hirigintzakoak, kirol ekipamenduak, txartel bakarra, gizarte zerbitzuak, lan arloa, osasuna, kontratazioa).

Arreta deitzen digu ikusteak, euskararen sustapena printzipio gidarien artean txertatuta egonik, horren islarik ez aurkitzea ez eskumenen esparruan, ez helburuen artean, ez hartu beharreko neurrien artean ere.

Hizkuntzaren gaiaren trataera eta genero berdintasunarena alderatzen baditugu ikus dezakegu genero berdintasunaren kasuan printzipio gidarien artean jasotzeaz gain ondoren ere txertatzen dela (10. eta 20. artikuluetan adibidez) eta IV. tituluaren (*Gobernantza Ona Jarduera Fisikoan eta Kirolean*) berariazko artikulua bat eskaintzen zaiola edukia garatzeko; honela dio aurreproiektuaren 23. artikulua:

23. artikulua.- Berdintasuna.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, herritarrei jarduera fisikoa eta kirola egiteko aukera ematean honako printzipio hauek aplikatzera bideratuko dute beren gobernu-ekintza: tratu-berdintasuna, ekitatea, aniztasunaren errespetua, genero-ikuspegiaren txertatzea, sexuaren araberako rolen eta estereotipoen desagerraraztea eta emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua kirol-erakundeen kudeaketa- eta zuzendaritza-organoean.

2.- *Berdintasuna era erreal eta eraginkorrean lortzeko emakumeek jarduera fisikoa eta kirola egiteko aukera (bizitzako etapa guztietara zuzendutako eta maila guztietako programa espezifikoen bidez) eta kudeaketa- eta erabaki-esparruetan parte hartzeko aukera sustatuko dute botere publikoek.*

3.- *Administrazio publikoen laguntza-deialdietan, berdintasunaren, ekitatearen eta genero-ikuspegiaren printzipioen erabateko errespetua baloratuko da erakunde eskatzaileen antolamenduan eta funtzionamenduan.*

4.- *Lege honen esparruan sartuta dauden kirol-lehiaketa guztietan, berdintasunaren eta ekitatearen printzipioa bete beharko da sarietan, sari ekonomikoak ematen direnean.*

5.- *Administrazio publikoek sustatuko dute instalazio edo gune publikoetan kirol-jarduerak antolatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek bi sexu-erakundeentzako kirol-programak antolatzea (mistoak edo bestelakoak), justifikatutako arrazoen kasuan izan ezik.*

6.- *Kirol-federazioen eta kirol-jarduerak antolatzen dituzten gainerako erakundeen araudietan, berdintasunaren eta ekitatearen printzipioa bete beharko da, eta debekatuta egongo da lehiaketa-oreka edo aukera-berdintasuna zaintzeko beharrezkoa ez den sexu-erakundearen diskriminazio oro.*

7.- *Lege honen babesean jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko garatutako programa guztiek genero-inpaktua ebaluatu beharko dute ezinbestez, nagusiki emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak zuzentzeko helburuarekin.*

8.- *Euskal Autonomiako administrazio publikoek eta kirol-erakundeek kirol-jardun inklusiboa bermatzeko eta sexu-identitatearen gaia behar bezala lantzeko neurri egokiak hartuko dituzte.*

9.- *Administrazio publikoek eta kirol-erakundeek bermatuko dute lesbiana, gay, transexual eta intersexualek jarduera fisikoa eta kirola egitean sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik, genero-adierazpenagatik, sexu-garapenagatik edo antzeko zirkunstantziengatik diskriminaziorik ez jasateko duten eskubidea. Horretarako:*

a) *Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak aurreiritzi, xaxatze, indarkeria edo intolerantzia oro eragozteko edo zailtzeko baldintzetan egingo direla bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte.*

b) *Jarduera fisikoan eta kirolean LGBTIfobiaren aurkako protokoloen onarpena eta inplementazioa sustatuko dute.*

10.- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek haurdunaldiagatik, amatasunagatik eta antzeko arrazoiengatik emakume kirolarien eskubideak diskriminatzen dituzten jardunbideak identifikatzeko, prebenitzeko eta zehatzeko politikak garatuko dituzte.

11.- Kirol-federazioek eta Kirol Federazioen Batasunak berdintasun-batzorde bat eratu beharko dute. Batzorde horrek, besteak beste, esparru horretan bere barruan gertatutako gorabeherak kudeatuko ditu, eta beren politiketan genero-ikuspegia txertatzen eta emakumeen aurkako indarkeria mota oro desagerrarazten lagunduko die elkartutako erakundeei.

23. artikulua honen planteamendua egokia iruditzen zaigu eta uste dugu gomendagarria eta koherentea litzatekela antzeko garapena egitea, ezaugarriak egokituz, euskararen sustapenari dagokionez.

Aldi berean, kontuan hartuta aipatutako 10. artikuluan txertatutako neurrien garapenean hizkuntzek duten garrantzia, ona litzateke euskararen sustapenari buruzko aipamena hor ere txertatzea genero ikuspegiarekin batera; honela dio aurreproiektuaren 10. artikulua:

10. artikulua.- Neurri orokorrak.

*Administrazio publikoek, aurreko artikuluan ezarritako helburuak lortzeko, honako neurri hauek hartu beharko dituzte beren eskumenen esparruan, **genero-ikuspegia txertatuta:***

- a) *Jarduera fisikoaren esparruko jardunbide egokiei **buruzko komunikazio-kanpainak egitea**, horrek pertsonen ongizaterako dakartzan onura ugarien inguruko sentsibilizaziorako eta ezagutzarako.*
- b) *Joan-etorriak oinez, bizikletaz edo beste baliabide gurpildun batzuetan egiteko aukera sustatzeko **kanpainak egitea**.*
- c) *Zenbait gune publikotan herritar guztiek parte hartzeko **aldizkako jarduerak antolatzea**.*
- d) *Osasunaren esparruko, hezkuntzaren esparruko, kirolaren esparruko, gizarte-zerbitzuen esparruko eta intereseko beste edozein esparrutako profesionalen **prestakuntza** sendotzea, gizarte aktiboago baten aldeko **sentsibilizazioa eta ezagutzak areagotzeko**.*
- e) *Kirol-asoziazionismoa bultzatzea, lehiaketa ofizialetatik kanpo egiten den **jarduera fisikoaren sustapenean protagonismo handiagoa har dezan**.*

Edonola ere, honelako edota antzeko aurreikuspenak beste artikuluko batzuetan ere jasotzen direnez, artikuluko orokor bat ere, 23. artikulukoaren pareko planteamenduarekin, txertatzea oso gomendagarria litzateke. Adibide pare bat jartzearren ikus dezagun 16. eta 18. artikuluek diotena:

16. artikulua.- Gizarte-zerbitzuen arloko neurriak.

1.- Kirolaren eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumenak dituzten administrazio publikoek honako neurri hauek hartuko dituzte beren eskumenen esparruan:

- a) Adinekoen jarduera fisikoa sustatzea eta, ildo horretan, zahartze aktiboaren aldeko kultura bultzatzea eta adinekoen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten ohitura osasungarriak sortzea.
- b) Adinekoen kolektiboari jarduera fisikoa egiteko beharrezkoa den **informazioa emateko sentsibilizazio-kanpainak egitea.**
- c) Adinekoen autoestimua, osasunaren eta ongizatearen hobekuntza bultzatuko duten jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko belaunaldi arteko **programen diseinua** eta gauzatzea sustatzea.
- d) Desgaitasuna duten pertsonen jarduera fisikoa egiteko aukera sustatzea eta erabateko integrazioa lortzeko oztopo guztiak desagerraraztea.
- e) Desgaitasuna duten pertsonen prestaketa fisikoaz arduratutako pertsonen **trebakuntza** espezifikorako neurri egokiak bultzatzea, jarduera fisikoak desgaitasuna duten pertsonen osasunean eta bizi-kalitatean izan ditzakeen ondorioak kontuan hartuta.

2.- Kirolaren eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten administrazio publikoek egoera txarrean edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen zuzendutako jarduerak antolatzeke baterako **programak sortuko** dituzte.

18. artikulua.- Osasunaren arloko neurriak.

1.- Osasunaren eta kirolaren arloan eskumenak dituzten Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek jarduera fisikoa bideratzeko zerbitzuen sorkuntza sustatuko dute elkarrekin, lehen mailako arretako zerbitzuek osasun-arrazoien ondorioz ez-aktiboak diren edo premia bereziak dituzten pertsona gisa identifikatzen dituzten pazienteentzat.

2.- Sail horiek osasuna jarduera fisikoaren bidez sustatzeko baterako neurriak hartuko dituzte. Horretarako, jarduera fisikoaren jardunaren onurei eta kontuan hartu beharreko neurriei buruzko **informazioa eta gomendio espezifikoak zabalduko dituzte**, eta patologia jakin batzuen prebentziora eta tratamendura bideratutako **programen bidez sustatuko dute** jardun hori.

Aurrera jarraitu aurretik aztertu nahi dugun beste gai bat aurreproiektuaren 6. artikuluan jorratzen dena da: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua; honela dio 6. artikulua horrek:

6. artikulua.- *Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua.*

1.- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-politikari lotutako gaietan administrazio publikoei aholkularitza emateko, kontsulta eta jarraipena egiteko eta eztabaida sektoriala egiteko organo gorena da, eta kirol-arloan eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sailari atxikita dago.

2.- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko, Euskadiko foru- eta udal-administrazioetako eta euskal kirol-federazioetako ordezkariak osatuko dute Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua. Halaber, jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan ospe handia duten pertsonak osatuko dute Kontseilua. Pertsona horiek esparru horretan eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sailaren titularrak izendatuko ditu.

*3.- **Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren osaera, izendapen-sistema, funtzionamendu-araubidea eta funtzioak erregelamenduz ezarriko dira.** Nolanahi ere, nahitaezkoa izango da Kontseiluak kirolari lotutako xedapen orokorren proiektuetan esku hartzea.*

4.- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren barruan, Lege honetan aurreikusitako azpibatzaordeak eta Osoko Bilkurak erabakitzen dituen guztiak eratuko dira. Halaber, arlo berak eraginpean hartutako administrazio publikoen jarduketan koordinazioa bermatzeko erakunde arteko koordinazio-mahai bat eratu da, emaitza komun bat eraginkortasunez eta efizientziaz, hutsunerik eta bikoiztasunik gabe lortzeko helburuarekin.

Kontseiluko kideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dutenez, zein kontseiluko gainontzeko kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko eta administrazioak jarraitu beharreko eraginkortasun eta efizientzia irizpideei jarraituz, komenigarria ikusten dugu jarraian proposatzen dugun testua edo antzekoa txertatzea:

Kontseiluko kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea eta gizonen eta emakumeen arteko oreka bilatuko da. Kontseiluko kideek euren jardunean hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute. Euskararen normalizazioa helburu Kontseiluak horrela erabakitzen badu bilera deialdiak, gai zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak oro har, euskaraz bideratu ahalko dira. Bestelakoa erabakitzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.

Proposatzen dugun testuan hizkuntzaren ikuspegia eta genero berdintasunarena elkartuta daude. Biak zeharkako gaiak izanik formula bera erabili izan ohi dugu beste hainbat kasutan.

Hemen planteatzen duguna arautzen diren gainerako organoei ere zabaldu beharko litzaieke; hala nola: 23.11 artikuluan jasotzen diren Kirol-federazioen eta Kirol Federazioen Batasunaren berdintasun-batzordeak, 24.1 artikuluan jasotzen diren Kirol-federazioen eta Kirol Federazioen Batasunaren kirol inklusiboaren batzordeak, 110.1 artikuluan jasotzen den jarduera fisikoan eta kirolean indarkeriari, arrazakeriari, xenofobiari eta intolerantziari aurre egiteko azpibatzerdea, XV. tituluaren II. kapituluaren araututako Kirol Justiziako Euskal Batzordea...

Lege aurreproiektuaren V. titulua Kirol Erakundeei buruzkoa da eta bere V. kapituluaren, Kirol Federazioei buruzkoan, txertatzen da aurretik aipatu dugun 42. artikulua, hizkuntza ofizialei buruzkoa.

Aurretik esan dugun bezala, gaur egun indarrean dagoen *Euskadiko Kirolaren*, ekainaren 11ko, 14/1998 *Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarriaren* garapen eguneratu eta osatua da.

Azpimarratuko dugu bere 4. azpiatalean ezartzen duena; honela dio:

42. artikulua.- Hizkuntza ofizialak.

4.- Kirol-federazioek hizkuntza-normalizazioko planak landu, onartu eta gauzatu beharko dituzte, federazioaren bizitzan euskararen erabilera normala pixkanaka bermatzeko. Betebehar hori bete ezean, dirulaguntzak jasotzeko gaitasuna galduko dute.

Kirol federazioetan hizkuntza normalizaziorako planak ezartzea oso neurri egokia iruditzen zaigu eta, zalantzarik gabe, oinarri sendoa du bai *Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren*, abenduaren 22ko, 6/2003 *Legearen* 39. artikuluan zein *Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia Antolatze Arauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren* 51.1.c) artikuluan (kontuan harturik, bereziki, dirulaguntzekin egiten den lotura eta 47. artikuluan aitortzen zaien onura publikoko erakunde izaera).

Halere, kontuan harturik normalizazio plan horietan ezarri ahal diren neurriak eta kide anitzeko organoen osaera eta funtzionamenduari buruz esandakoa *Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua* aztertzerakoan, hots:

Euskararen normalizazioa helburu Kontseiluak horrela erabakitzen badu bilera deialdiak, gai zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak oro har, euskaraz bideratu ahalko dira. Bestelakoa erabakitzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da

zalantza sortzen digu 42.2 artikuluan ezartzen den elebitasunak kalte egin ahalko dion euskararen normalizazioari erakunde batzuen kasuan, honela dio:

2.- *Kirol-federazioek bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte honako dokumentu hauetan gutxienez:*

- a) *Federazio-lizentziak.*
- b) *Ematen dituzten txartelak, agiriak eta antzeko dokumentuak.*
- c) *Estatutuak, erregelamenduak eta zirkularrak.*
- d) *Lehiaketak iragartzen dituzten kartelak.*
- e) *Federazio-organoen **deialdiak**.*
- f) *Gobernu- eta administrazio-organoen **bilkuren aktak**.*

Hori horrela, Kontseiluaren funtzionamendurako proposatutako eredia egokiagoa iruditzen zaigu eta gomendatzen dugu 42.2 artikulua idazketa norabide horretan egokitzea.

Bestalde, 42.4 artikulua idazketan ñabardura bat txertatzea proposatzen dizuegu:

42. artikulua.- Hizkuntza ofizialak.

4.- *Kirol-federazioek hizkuntza-normalizazioko planak landu, onartu eta gauzatu beharko dituzte, federazioaren euskararen erabilera normala pixkanaka bermatzeko **bai barne jardueretan zein herritarrei zuzendutakoetan**. Betebehar hori bete ezean, dirulaguntzak jasotzeko gaitasuna galduko dute.*

Halaber, kapitulu berean kokatzen den 31. artikuluan, *kirol federatuaren antolamenduari buruzkoan*, euskararen sustapenari lotutako aipua txertatzea proposatzen dizuegu; adibidez:

31. artikulua.- Kirol federatuaren antolamendua.

2.- *Kirol-federazioek beren estatutu eta erregelamendu propioen bidez arautuko dute beren egitura eta funtzionamendu-araubidea, demokraziaren, ordezkagarritasunaren, **euskara sustatzearen** eta genero-ikuspegiaren txertatzearen printzipioei jarraikiz.*

V. tituluko VII. kapituluaren *Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroa* arautzen da; horren harira gogoratuko dugu *Euskararen Erabilera Normalizatzeko*, azaroaren 24ko, 10/1982 Oinarrizko Legearen 7.1 artikulua dioena:

7. artikulua

1. Autonomia Erkidegoaren menpeko erregistro publikoetan, direla Jaurlaritzarenak, bere erakunde autonomiadunenak, foru-administrazioenak, toki-administrazioenak edota besterenak, dokumentuak lerrotatzea dokumentuok idatzita dauden hizkuntza ofizialean egingo da.

Lege aurreproiektuaren VII. titulua *Eskola-Adineko, Unibertsitateko Eta Lanbide-Heziketako Jarduera Fisikoa Eta Kirolari* buruzkoa da.

Bere I. kapitulua *Eskola-Adineko Jarduera Fisikoa Eta Kirolari* buruzkoa da eta bertan txertatzen da txostenaren hasieran aipatutako 73.7 artikulua; gogoratu dezagun dioena:

73. artikulua.- Programak.

7.- Eskola-adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programek euskararen erabilera sustatu beharko dute ikasleen kirol-jardunaren esparruan.

Arreta deitzen digu ikusteak jarraian kokatzen diren II. eta III. Kapituluetan, *Unibertsitateko eta Lanbide-Heziketako Jarduera Fisikoa Eta Kirola* hurrenez-hurren, ez dela antzeko neurririk jasotzen.

73.7 artikuluan jasotako neurria oso egokia iruditzen zaigu baina VII. tituluaren hiru kapituluek arautzen dituzten hiru esparruetara zabaldua, genero ikuspegiarekin egiten den bezala (ikus. II. eta III. kapituluetan kokatutako 76. eta 79. artikulua).

VIII. tituluan, *Ikerketa, Berrikuntza eta Kirol-Teknikarien Prestakuntza eta Boluntarioei* buruzkoan, kokatzen da aurretik aipatutako 81. artikulua. Lehen bere 3. azpiatala besterik ez dugu aztertu hizkuntza ofizialei buruzko aipamena horretan kokatzen zelako.

Halere, artikulua osoaren edukiak lotura du hizkuntzen erabilerarekin; ikus dezagun dioena:

81. artikulua.- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskola.

1.- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskola kirol-arloan eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sailari atxikita dagoen administrazio-zerbitzu bat da, eta honako funtzio hauek ditu esleituta:

- a) *Jarduera fisikoari eta kirolari lotutako prestakuntzen arloko sail arteko koordinazioa egitea.*
- b) *Teknikarien, epaileen eta zuzendarien **prestakuntza-programak** planifikatzea eta koordinatzea.*
- c) ***Ikerketa- eta berrikuntza-programak** sustatzea eta bultzatzea.*
- d) *Jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruko prestakuntza-ekintzei buruzko **informazio-plataforma elektronikoa osatu, sistematizatu eta eguneratu bat** sortzea eta kudeatzea.*
- e) *Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko **azterlanak** zabaltzea.*
- f) *Jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruari buruzko **dokumentazio-zerbitzu bat** antolatzea.*
- g) *Etengabeko prestakuntzako eta kirol-teknifikazioko **ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak eta programak** antolatzea edo egitea.*
- h) *Kirol-federazioei eta beste zentro batzuei prestakuntza-programen inguruko **aholkularitza eskaintzea.***
- i) *Kirol-federazioek eta gainerako prestakuntza-zentro publiko eta pribatuek prestakuntza-programetan genero-ikuspegia eta kirolaren integritateari, joko garbiari, errespetuari, inklusioari eta antzeko balioei lotutako edukiak txerta ditzaten sustatzea.*
- j) *Arauz esleitzen zaizkion beste guztiak.*

2.- *Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolak sektore publikoko gainerako prestakuntza-zentroekin koordinatu beharko du giza baliabideak eta baliabide materialak optimizatzeko.*

3.- *Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolak **prestakuntza- eta informazio-programak** sustatuko ditu kirol federatuaren, eskola-kirolaren, unibertsitate-kirolaren eta lehiaketa-izaerarik gabeko beste kirol-adierazpen batzuen esparruan. **Programa horien eskaintza bi hizkuntza ofizialetan egingo da, baina, ahal bada, euskara lehenetsiko da 18 urtetik beherako pertsonen zuzendutako programetan.***

4.- *Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolaren antolamendua, eskumenak eta funtzionamendua erregelamenduz finkatuko dira.*

3. azpiatalen ezarritakoa egokia iruditzen zaigu baina uste dugu alde batetik ez dela mugatu behar prestakuntza eta informazio programetara, artikuluan jorratzen diren gainerako jardueretara ere zabaldu behar dela eta euskararen erabilera kasu guztietan lehenetsi behar dela, 18 urtetik beherako pertsoneri mugatu gabe; adibidez:

“euskara lehenetsiko da”

edo

“euskara lehenetsiko da, batez ere, 18 urtetik beherako pertsoneri zuzendutako programetan”

eta, bide beretik, ***“ahal bada”*** esaldia kendu egin behar dela edo, besterik gabe kentzea ezinezkoa ikusten bada, ***“ahal den neurrian”*** esaldiarekin ordezkatu.

XIV. tituluan Kirol Ikuskapena eta Zehapen Araubidea arautzen dira; bere I. kapitulua Kirol Ikuskapenari buruzkoa da eta bertan kokatzen den 133. artikuluan ikuskapenak egiteko gaikuntza aipatzen da; herritarren hizkuntza hautatzeko eskubidea bermatze aldera gomendagarria litzateke gaikuntzarako baldintzen artean EAEko bi hizkuntza ofizialen nahikoa ezagutza kontuan hartzea.

Zazpigarren Xedapen Gehigarrian Kirol-kluben onura publikoaren deklarazioa jasotzen da; honela dio:

Zazpigarrena. - Kirol-kluben onura publikoaren deklarazioa.

1.– Lege honetan adierazitako kirol-klubek onura publikoaren deklarazioa jaso ahal izango dute Eusko Jaurlaritzak erabakita, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Euskadiren interes orokorrean laguntzea.*
- b) Bazkideen kopurua mugatua ez izatea, gaitasun fisikoari eta kirol-instalazioen edukierari lotutako arrazoien kasuan izan ezik.*
- c) Bazkideen kuotek erregelamenduz finkatzen diren zenbatekoak ez gainditzea.*

2.– Onura publikoaren deklarazioak Lege honetan ezarritako onurak ekarriko ditu.

Aipatutako onurak kontuan hartuta eta aintzat harturik xedapenaren edukietan kirol klubei ez zaiela hizkuntza betebeharririk ezarri, gomendagarria litzateke euskararen sustapenari bideratutako hizkuntza baldintza batzuk aurreikustea.

Azkenik, txosten honen esparrutik kanpoko gaia izan arren, akatsak izan daitezkeen batzuk antzeman ditugu testuaren euskarazko zatian:

- Zioen azalpeneko 19. lerroaldean honela dio:
“hauteskunde prozesuetan oinarriuta egiten ziren”;
- 52.3 artikuluan honela dio:
“kirolarien selekzioaren kirol-lahiaketetan”;
- VIII. tituluaren izenburuan “*prestakuntza*” eta “*boluntarioak*” hitzen arteko puntua falta da;
- XV. tituluaren bi kapitulu daude *II.* zenbakiarekin (euskarazkoan zein gaztelaniazkoan): “*Kirol Justiziako Euskal Batzordea*” eta “*Arbitrajea*”.

Laguntze aldera ohartarazten dizuegu, zuzendu ahal dezazuen egokia baderitzozue.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria